

ORTUELLAKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

1- SARRERA

A) AURRETIAZKO ZEHAZTAPENAK

Diru-laguntzen arloan indarrean dagoen legeriaren funtsezko helburua da jarduera publiko bat, sustapeneko eta promoziokoa izan ohi dena, legeak ezartzen dituen parametroen barruan egin dadila, aldeztu aurretik jarduera hori kontrolatzeko eta gerora ebaluatzeko mekanismo egokiak ezarritik, oinarritzko helburu hauek kontuan izanik:

- Gizarte zibil egituratuak egiten duen eta interes publikoa eta orokorra dauzkan jarduna sustatzen laguntzea.
- Pertsonen sustapena eta inklusioa (soziala, profesionala eta lan arlokoa) bultzatzea, gizarte zaurgarritasuneko egoera jakin batzuetan dauden herritarrei laguntza ekonomikoak emanez.

Legeak dio ezen, administrazio publikoen jarduketan eraginkortasuna hobetzeko tresna gisa eta kudeaketa-elementu gisa, administrazio bakoitzak bere diru-laguntzen plan estrategikoa osatu behar duela, lortu beharreko helburuak eta sorrarazi nahi diren ondorioak aurreikusitako kostuekin eta beraien finantzaketarekin erlazionatzen dituen, diru-laguntzen bidez asebeteko gura diren beharrezko publikoak baliabide erabilgarriei egokitzeko. Hori dena, diru-laguntza eman aurretik.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikulua ezarritakoaren arabera, *“administrazio publikoetako organoek edo diru-laguntzen ezarpena proposatzen duen edozein erakundek, aldeztu aurretik, diru-laguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte beraien aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, baita horiek lortzeko epea, aurreikusten diren kostuak eta haien finantzatzeko iturriak ere; betiere, aurrekontu-egonkortasunaren helburuak beteko direla bermatuta”*.

Diru-laguntzen Lege Orokorra beste aurrerapauso bat da sistema ekonomikoa hobetzeko eta arrazionalizatzeko bidean. Lege honen printzipioetako bat gardentasuna da. Horrek, legean artikulatzen diren gainerako tresnekin batera, diru-laguntzen gastu publikoaren kudeaketan eraginkortasun-mailak zuzenean hobetzen ditu.

B) IZAERA JURIDIKOA

Diru-laguntzen plan estrategikoak programa izaerako kudeaketa-tresnak dira, arau-lerrunik gabekoak. Ez dute zuzeneko eraginik sortzen partikularrengan, eta plan hauek onartzeak ez du eskubide ez betebeharririk sortzen administrazioarentzat.

Haien eraginkortasuna diru-laguntza lerroen oinarriak eta deialdiak onartzearen eta ekitaldi bakoitzean aurrekontu erabilgarria egotearen baldintzapean dago.

C) ESKUMENA

Diru-laguntzen plan estrategikoa onartzeko eskumena daukan organoa Ortuellako Udaleko Udaltza da, diru-laguntza jardueraren edo sustapen eta kudeaketa ekonomikoaren plangintza estrategikorako tresna baita, Tokiko Araubidearen Oinarrien Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

HELBURU OROKORRAK:

- ▶ Azaroaren 17ko 38/2003 Legean jasotzen den **lege-agindua betetzea**. Lege horrek, 8.1 artikuluan, diru-laguntzak eman nahi dituzten udalak plan estrategikoa egitera behartzen ditu.
- ▶ Zuzenean eragitea **eraginkortasun mailak hobetzerakoan** diru-laguntzetarako gastu publikoaren kudeaketan.

► **Diruz laguntzen den egitatea herritarrek eskura dezatela erraztea**, gardentasuna, udal irizpidearen batasuna eta lehia librea irizpide izanik.

► **Udal kudeaketa arrazionalizatzea**, bere plangintzari transbertsalitatea emanez, prozedurei sistematikotasuna emanez eta ebaluaziorako tresna tekniko aurreratuak eskainiz.

2018KO JARDUKETAKO LERRO ESTRATEGIKOAK.

Plan estrategiko honetan jasotako jarduketako lerro estrategikoak, zeintzuetan udalaren eta beraren erakundeen diru-laguntza lerroak sartzen diren, hauek dira:

1. lerro estrategikoa: Gizarte Ekintza.
2. lerro estrategikoa: Garapenerako Lankidetzeta eta Giza Baliabideak.
3. lerro estrategikoa: Euskararen normalizazioa.
4. lerro estrategikoa: Kirolaren sustapena.
5. lerro estrategikoa: Kulturaren dinamizazioa eta hezkuntza.
6. lerro estrategikoa: Sustapen ekonomikoa.
7. lerro estrategikoa: Aukera-berdintasuna.

2018ko ekitaldian lerroetako bakoitzerako aurreikusten diren diru-zenbatekoak Ortuellako Udalaren urteko aurrekontuan jasotakoak dira, Udalbatzak 4. eranskinean (Transferentzia eta diru-laguntza arruntak) onartutako terminoetan. Beraien diru-zenbatekoa 549.400,00 eurokoa da guztira. **ERANSKIN** gisa erantsi dira.

2018 denboraldirako jarduketa-lerro espezifiko horien indarrak baldintza eta muga hau izango du: urteko aurrekontu egokian onartuak izatea, onartzen diren terminoetan.

1. KAPITULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK

1. ARTIKULUA. Udal honek 2016 eta 2018. urteen arteko denboraldian ezartzen dituen diru-laguntzak plan honetan azaldutakoarekin bat etorri behar dira.

2. ARTIKULUA. Plan honetan aurreikusten diren diru-laguntzak ezarri ahal izateko, urte bakoitzeko udal aurrekontuetan kontsignazio egokiak sartu beharko dira, eta diru-laguntza horiek ematea arautzen duten oinarriak onartu beharko dira.

3. ARTIKULUA. Diru-laguntzak ezarri ahal izateko, aurrekontu-egonkortasuneko helburuak bete beharko dira; beraz, onartzen diren aurrekontu-kontsignazioak eta diru-laguntza horiek emateko oinarriak helburu horiei egokituko zaizkie une bakoitzean.

4. ARTIKULUA. Diru-laguntzen plan estrategikoa onartzeak ez dakar inolako eskubiderik sortzea balizko onuradunen alde; beraz, ezin izango dute kalte-ordainik edo konpentsaziorik eskatu baldin eta plana ez bada bere terminoetan gauzatzen.

5. ARTIKULUA. Hauek dira plan honen printzipio orokorrak:

- Publizitatea eta lehia librea, aurrez deialdia eginez, eta funts publikoak banatzeko orduan objektibotasuna, gardentasuna, publizitatea, lehia eta berdintasuna bermatuz; nolahi ere, izango da aukerarik diru-laguntzak zuzenean emateko ere, aplikatzekoa den araudian ezarritakoaren arabera, aurrez aurrekontuko kontsignazio egokia badago eta hitzarmen izenduna egiten bada.

- Emakida deialdian aurrez ezarritako irizpide objektiboen arabera egitea, balizko onuradunek irizpide horiek aldeztu aurretik jakiten dituztela bermatzeko.



- Eraginkortasuna ezarritako helburuak betetzean eta baliabide publikoak esleitzean. Kuantitatiboki eta kualitatiboki justifikatu behar dira.

- Diruz laguntzen diren jarduerak egitean, eskaera egiten duten erakundeen helburuek berdintasunaren eta bazterketa ezaren printzipioak betetzen dituztela kontrolatzea eta analizatzea.

- Plan estrategikoaren egokitasuna modu iraunkorrean egiaztatzea:

- Plana ikuspegi sozialetik justifikatzea.
- Arreta ematen dien herritarren beharrianak.
- Finantzatzeko gaitasuna.
- Udalak gaian daukan eskumena azaltzea.

- Baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko eraginkortasuna

6. ARTIKULUA. Laguntzak edo diru-laguntzak ematea proposatzeko eskumena Tokiko Gobernu Batzarrak izango du, arlo kudeatzaileak proposatuta. Alkatetza izango da diru-laguntzak emateko eskumena duena.

Beraz,

– Diru-laguntzen programak aurrekontuan zuzkidura egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean egongo dira.

– Diru-laguntzak eman baino lehen edo zuzeneko emakidak (hitzarmenak) egin baino lehen, gastua onartu beharko da, Ortuellako Udalaren aurrekontu-arauetan ezarritako terminoetan.

– Diru-laguntzak eman baino lehen, emakida arautzen duten arauak edo oinarriak onartu behar dira.

2. KAPITULUA. PLANAREN EDUKIA

7. ARTIKULUA. Ordenantza arautzailean ezarritakoarekin bat etorrituz, 2016-2018 ekitaldietarako plan honetan ezarritako diru-laguntza eta laguntzen emakidetan honako hauek sartu behar dira:

- lortu nahi diren helburuak
- aplikatu beharreko emakida-modalitatea
- nori zuzenduta dauden
- diru-zenbatekoa
- aurrekontu-aplikazioa

8. ARTIKULUA.

Diru-laguntzen plan estrategikoa urtero osatuko da, aurrekontu orokorrari horretarako gehitzen zaion ERANSKINArekin. Eranskin horretan diru-laguntzen arloko jarduerak zerrendatu eta xehatuko dira, jarduketaren arabera taldekatuta.

9. ARTIKULUA. Aurrekontuan aurreikusi diren diru-laguntzen hurrenkera honako irizpide hauen arabera antolatuko da eranskinean:

- Ekintza arloa.

- Xedea. Diru-laguntza zein xedetarako eman den zehazten da irizpide horretan. Gero xedea bete den ebaluatuko da.

- Kudeaketa modalitatea. Irizpide horren arabera, aurreikuspenak sailkatzen dira, diru-laguntza ematean aplikatu behar den prozedurari dagokionez (lehia librea, hitzarmen nominatiboa).

- Zenbatekoa. Diru-laguntza bakoitzeko aurreikusi den esleipena.

Urteko lehen hiruhilekoan, lehia orokorreko diru-laguntza guztien deia egingo da. Espediente bakoitza gehienez hiru hilabeteko epean ebatziko da.

Ekainean eta abenduan, Tokiko Gobernu Batzordeak ebaluatuko du urtean planifikatu diren diru-laguntzen egoera. Horretarako, hala dagokionean, egoki deritzen txosten guztiak eskatu ahalko dizkie arlo kudeatzaileei edo kontu-hartzailetzako arloei.

3. KAPITULUA.- ONURADUNAK ETA DIRU-LAGUNTZEN GAIAK

10. ARTIKULUA. Udalak pertsona edo erakunde pribatuei diru-laguntzak emango dizkie erabilgarritasun publikoko edo interes sozialeko jarduerak egitea sustatzeko helburuz, edo tokiko eskumenari esleitutako helburu publikoak lortzea sustatzeko.

11. ARTIKULUA. Ortuellako Udalak urtero diru-laguntzak ezarriko ditu eskumen-arlo hauetan: gizarte ekintza, ekonomiaren sustapena, kirola, kultura, hezkuntza, euskara, garapenerako lankidetzeta eta giza eskubideen defentsa, gazteria. Aurrekoa gorabehera, gerta liteke aipatutako arlo horietakoren bat ez sartzea, beraren aurreikuspena galarazten duten arrazoi justifikatuak daudenean.

4. KAPITULUA.- GAUZATZEKO EPEAK

12. ARTIKULUA. Oro har, udal diru-laguntzek urtebeteko gauzatze-epea izango dute, eta urte naturala izango da justifikaziorako hautatuko den aldia.

Inguruabarrak kontuan izanik gauzatze-epea urtebete baino luzeagoa izatea edo hautatzen den aldia aldatzea komeni denean, diru-laguntzen oinarrietan jaso beharko dira inguruabarrok.

5. KAPITULUA.- FINANTZAKETA

13. ARTIKULUA. Plan honetan sartzen diren laguntzen eta diru-laguntzen lerroen eraginkortasuna urteko aurrekontuan kreditu egoki eta nahikoa egotearen baldintzapean geratuko da.

Edozein motatako diru-laguntza eman baino lehen, gastu egokiaren baimena izapidetuko da.

6. KAPITULUA.- DIRU-LAGUNTZEN ARAUKETAN KONTUAN IZAN BEHARREKO IRIZPIDE OROKORRAK

14. ARTIKULUA. ZUZENEKO DIRU-LAGUNTZA IZENDUNAK: Diru-laguntza bat izenduna dela adierazi ahal izateko, udal aurrekontuan diru-laguntzaren onuraduna jaso beharko da.

Diru-laguntza hauen xedea lankidetzeta hitzarmenean edo emakidaren ebazpenean zehaztu behar da berariaz.

15. ARTIKULUA. LEHIAN EMATEN DIREN DIRU-LAGUNTZAK: Deialdietan baremoa sartu behar da, emakidarako irizpideekin eta beraien haztapanarekin.

Onartutako kreditua eskaera egileen artean hainbanatzeko aukera, salbuespen gisa, aurreikusten den kasuetan, deialdiaren oinarrietan berariaz adierazi beharko da.

16. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU AHAL DIREN GASTUEN JUSTIFIKAZIOA:

- Justifikazioa proiektu osorako egingo da.



- Diru-laguntzen deialdietan aukera egongo da, emakida-proposamena ikusita (zeinetan emandako zenbatekoa eta proiektuko parte hartzearen portzentajea adierazi behar diren), organo kudeatzaileak aurkeztu den proiektua birformulatzeko eska dezan, emakida-baldintzei egokituta.
- Justifikazioa egiteko, diruz lagundutako jardueraren kostu osoaren ziurtagirien zerrenda aurkeztu ahalko da, kostu horien ziurtagiriekin batera, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa agerrarazita.

7. KAPITULUA.- DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN ERAGINKORTASUNA EBALUATZEA. EMAITZEN ANALISIA.

17. ARTIKULUA. Diru-laguntza bakoitzaren eraginkortasuna hobeto analizatzeko, diru-laguntzak kudeatzen dituzten arloek onuradunei txosten arrazoitua eskatuko diete, gai hauek azaltzen dituen: egindako ekintza kopurua, diru-laguntza dagokien pertsona kopurua, eta lortutako helburuen justifikazioa.

Planaren kontrola eta jarraipena diru-laguntza edo hitzarmena kudeatzen duen arloak egingo ditu. Hurrengo ekitaldiko lehenengo lauhilekoan justifikazio-memoria bidali beharko du, ondoko hauek zehaztuta:

- Diru-laguntzen lerro eta mota bakoitzari buruzko informazioa. Emandako diru-laguntzak, justifikatuak, uko egin zaienak eta itzuli direnak (edo itzultzeko prozeduran daudenak) jaso behar dira.
- Helburu espezifikoek eta epeen betetze maila.
- Beraien ekintza-planaren eta adierazle zenbakarrien benetako kostuak, aurreikusi ahal diren kostuen aldean.
- Eraldatu nahi den errealtatearen gaineko inpaktua eta ondorioak.
- Plana aplikatuzetik aurrekontuan eta finantzetan sortzen diren eraginak.
- Ondorioak edo balorazio globala.
- Diru-laguntzen hurrengo plan estrategikoa egiteko iradokizunak.

Gero, arlo kudeatzaileek emaitzak ebaluatuko dituzte, diru-laguntza lerroetan balizko aldaketak analizatze aldera, beraietan ezarri diren helburuak lortzeko.

8. KAPITULUA: TOKIKO GOBERNU-BATZARRARI ETA ANTOLAKETA-BATZORDEARI IGORRI BEHARREKO INFORMAZIOA

18. ARTIKULUA. Aurreko artikuluan aipatutako dokumentazioa, ondorioen txosten bat egiteko helburuz. Txosten hori Antolaketa Batzordeari igorriko zaio, memoriari dagokion ekitaldiaren hurrengo ekitaldiko lehenengo sei hilekoan.

1. ERANSKINA: LERRO ESTRATEGIKOAK.

Plan honen eranskin gisa jasotzen dira udal laguntzen lerro espezifikoak, dagozkien lerro estrategikoetan antolatuta, beren helburu estrategikoekin eta helburu espezifikoekin. Halaber, beraien gainerako ezaugarriak eta 2016ko ekitaldirako aurreikusitako hasierako zuzkidura ekonomikoa ageri dira.

Kostu ekonomikoak, arloa eta adjudikazio-prozedura dokumentuaren amaieran ageri dira, koadro batean.

PROGRAMAK ETA LAGUNTZA-LERROAK.

1. LERRO ESTRATEGIKOA: GIZARTE-EKINTZA

Helburu estrategikoak:

-Inguruabar puntualek sorrarazitako premia ekonomikoko egoerak arintzea, ahalduntze tresnak eskainiz eta lan-merkatuan berriro sartzeko bideak indartuz.

-Udalerriko adineko pertsonen artean prestakuntzako eta aisialdiko jarduerak eta programak sustatzea eta bultzatzea.

Helburu espezifikoak:

1.1.- Gizarte larrialdiko laguntzak ematea. Gizarte zerbitzuek aholkularitza eta orientazio funtzioa beteko dute, eta gizarte zerbitzuek beharrezkotzat jotzen duten kasuetan jarraipena egingo da.

1.2.- Gizarte zerbitzuek esku hartze bat egitea beharrezkoa den analizatzea, baloratzea eta jardutea, premiazkotzat jotzen den egoeretan, premia handiko laguntzen bitartez.

1.3.- Udalerriko adineko pertsonen artean dirua irabazteko asmorik gabeko gizarte-ekimena sustatzea, San Felix elkartearen jarduerak babestuz eta koordinatuz.

1.4.- Jarduera pribatuak, kanpoan uzteko arriskuan dauden pertsonen familien baldintzak hobetzeko.

1.5.- Ikusten diren gizarte-premien arabera lehentasunezkoak diren proiektuak dauzkaten esku hartze arloak edo edukiak urtero zehaztea, eta sinatzen diren hitzarmenetako eta deialdietako oinarrietan sartzea.

Gauzatzeko epea:

Urteko deialdiak

Finantzaketa-iturriak:

Udal aurrekontua, jarduketa-planean jasotako aurrekontu-aplikazioekin eta lerro espezifikoekin bat etorritz.

Jarduketa-plana:

Diru-laguntzako lerro espezifiko hauetako bakoitzerako deialdi-oinarri edota lankidetzeta-hitzarmen egokiak prestatuz egingo da lerro estrategiko hau gauzatzeko jarduketa-plana.

2. LERRO ESTRATEGIKOA: GARAPENERAKO LANKIDETZA / GIZA ESKUBIDEAK

Helburu estrategikoa:



-Herri behartsuenen garapenean laguntzea, herritarren sentikortasuna areagotzen duten eta herri horien bizi-baldintzak hobetzen laguntzen duten ekimenak sustatuz, elkartasuneko eta toki garapeneko proiektuetarako laguntza ekonomikoak emanez.

-Presoen senideak babestea, beraiei lagun egitean.

Helburu espezifikoak:

1.1.- Herriek giza garapen "autosostengatua" eta iraunkorra, ingurumena errespetatzen duena eta beren baliabideak erabiltzeko dizkiena izan dezaten laguntza ematea.

1.2.- Larrialdi-egoerei erantzutea, laguntza humanitarioko ekintzen bitartez.

1.3.- Gueltako Daira izeneko herriarekin (Ortuellarekin senidetutako herria) finkatutako adiskidetasun eta lankidetzak loturak sendotzea, lankidetzako eta trukeko mota orotako ekintzak sustatuz.

Gauzatzeko epea:

Urteko deialdiak

Finantzaketa-iturriak:

Udal aurrekontua, jarduketa-planean jasotako aurrekontu-aplikazioekin eta lerro espezifikoekin bat etorritik.

Jarduketa-plana:

Lerro estrategiko hau gauzatzeko jarduketa-plana egiteko, diru-laguntza lerro bakoitzerako deialdien oinarriak egingo dira, eta aurrekontuan izenarekin ageri diren erakundeekin hitzarmenak eginez izapidetuko da.

3. LERRO ESTRATEGIKOA: EUSKARAREN NORMALIZAZIOA

Helburu estrategikoa:

-Udalerrian euskara ikastea eta erabiltzea sustatzea eta bultzatzea, eremu guztietan modu mailakatuan zabalduz.

Helburu espezifikoak:

3.1.- Ortuellako herritarren artean euskara ikastea bultzatzea, eta euskararen normalizazioa eta udalerriko bizitzan euskararen erabilera normaltzeko helburua duten jarduerak koordinatzea, aisialdiko eta kulturaren alorreko jardueren bitartez.

3.2.- Euskararen normalizazioan, estrategikoak diren sektoreen, euskara ikasketa bultzatzea: 0-16 urte bitarteko umeen gurasoak, humekin lan egiten duten monitoreak eta entitate hauetako zuzendaritza-batzordeetan dauden pertsonak.

3.3.- Umeen artean euskararen erabilera sustatzea, ikastetxeetan egiten diren jarduketak babestuz, eta euskararen sustapenaren eta erabileraren helburuak betetzea baloratuz.

Finantzaketa-iturriak:

Udal aurrekontua, jarduketa-planean jasotako aurrekontu-aplikazioekin eta lerro espezifikoekin bat etorritik.

Jarduketa-plana:

Diru-laguntzako lerro espezifikoetako bakoitzerako deialdien oinarri egokiak prestatuz egingo da lerro estrategiko hau gauzatzeko jarduketa-plana.

4. LERRO ESTRATEGIKOA: KIROLAREN SUSTAPENA

Helburu estrategikoa:

-Herritarrei, oro har, beren kirol premiak asebetetzeko aukera ematea, eta jardun osasuntsua bultzatzea, bizi-kalitatea hobetzeko modua den aldetik, kirol erakunde eta federazioekin lankidetzan arituz.

Helburu espezifikoak:

4.1.- Udalerriko kirol elkarteekin lankidetzan aritzea, bai jardueren garapenean bai kirol erakundeen funtzionamendua hobetuz.

4.2.- Lagatzen diren kirol instalazioen kalitatea eta herritarrek horietan daukaten parte hartzea hobetzea.

4.3.- Oinarrizko kirol erakundeen kirol federatua sustatzea.

4.4.- Ikastetxe publikoetan eta itundutako ikastetxe pribatuetan eskola kirola bultzatzea eta sustatzea, guraso elkarteen bitartez.

4.5.- Kirol elkarteek kalean kirola egitea bultzatzea.

Gauzatzeko epea:

Urteko deialdiak

Finantzaketa-iturriak:

Udal aurrekontua, jarduketa-planean jasotako aurrekontu-aplikazioekin eta lerro espezifikoekin bat etorritik.

Jarduketa-plana:

Lerro estrategiko hau gauzatzeko jarduketa-plana egiteko, diru-laguntza lerro bakoitzerako deialdien oinarriak egingo dira, eta aurrekontuan izenarekin ageri diren erakundeekin hitzarmenak eginez izapidetuko da.

Lehia libre eta, zehazki, lerro espezifiko bakoitzean jasotakoa.

5. LERRO ESTRATEGIKOA: KULTURAREN DINAMIZAZIOA ETA HEZKUNTZA

Helburu estrategikoa:

Udalerriko kultura-sarea sustatzea, zabaltzea eta bultzatzea, eta udalerrinari kultura-balioa emateko helburuz biztanleentzat egiten diren jarduketak sustatzea.

Helburu espezifikoak:

5.1.- Udalerriko kultura-elkarteekin lankidetzan aritzea, bai beraien jardueren garapenean bai beraien funtzionamendua hobetuz.

5.2.- Lagatzen diren kultura-instalazioen kalitatea eta herritarrek horietan daukaten parte hartzea hobetzea.

5.3.- Musika-ikasketak sustatzea eta bultzatzea.

5.4.- Eskola-ordutegitik kanpo umeentzat egiten diren hezkuntza jarduerak bultzatzea.

5.5.- Gazteek eta beraien elkarteek udalerriko dinamika soziokulturalean parte hartzea bultzatzea.



5.6.- Gazteria arloan jarduerak egiteko lankidetzak hitzarmenak egitea, udal aurrekontuan izenarekin aurreikusita.

5.7.- Lan-bizitza eta familia bateragarri egitearen laguntza ematea.

Gauzatzeko epea:

Urteko deialdiak

Finantzaketa-iturriak:

Udal aurrekontua, jarduketa-planean jasotako aurrekontu-aplikazioekin eta lerro espezifikoekin bat etorritik.

Jarduketa-plana:

Lerro estrategiko hau gauzatzeko jarduketa-plana egiteko, diru-laguntza lerro bakoitzerako deialdien oinarriak egingo dira, eta aurrekontuan izenarekin ageri diren erakundeekin hitzarmenak eginez izapidetuko da.

Lehia librea eta, zehazki, lerro espezifikoko bakoitzean jasotakoa.

6. LERRO ESTRATEGIKOA: EKONOMIAREN SUSTAPENA

Helburu estrategikoa:

Udalerrian enpresa txiki eta ertainen jarduera ekonomikoa bultzatzea.

Helburu espezifikoak:

6.1.- Enpresa berrien sorrera babestea.

6.2.- Komertzio txikiaren jarduerak dinamizatzea, Merkatari Elkartearen bidez.

6.3.- Tokiko kontsumoa sustatzeko kanpainak antolatzea.

6.4.- Enpresa-ekimenetan lankidetzak jarduera sustatzea.

Gauzatzeko epea:

Urteko deialdiak

Finantzaketa-iturriak:

Udal aurrekontua, jarduketa-planean jasotako aurrekontu-aplikazioekin eta lerro espezifikoekin bat etorritik.

Jarduketa-plana:

Lerro estrategiko hau gauzatzeko jarduketa-plana egiteko, diru-laguntza lerro bakoitzerako deialdien oinarriak egingo dira, eta aurrekontuan izenarekin ageri diren erakundeekin hitzarmenak eginez izapidetuko da.

Lehia librea eta, zehazki, lerro espezifikoko bakoitzean jasotakoa.

7. LERRO ESTRATEGIKOA: AUKERA-BERDINTASUNA

Helburu estrategikoa:



Ortuella

Udala

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea, emakumeen parte hartzea, aholkularitza eta informazioa eremu guztietan bultzatuz, eta gizarteak aukera berdintasunari buruz orokorrean kontzientzia izatea bultzatuz.

Helburu espezifikoak:

7.1.- Ortuella udalerriko emakume elkarteak udalerriko emakumeen harremanetarako, prestakuntzarako eta ahalduntzerako espazioak izan daitezela.

7.2.- Udalerriko emakume elkarteetako kide diren emakumeen bizi-kalitatea hobetzen eta areagotzen laguntzen duten jarduerak dinamizatzea eta sustatzea.

7.3.- Gaitasunak eta ahalmenak indartzea, genero-berdintasuneko programen eta jarduketan bitartez.

Gauzatzeko epea:

Urteko deialdiak

Finantzaketa-iturriak:

Udal aurrekontua, jarduketa-planean jasotako aurrekontu-aplikazioekin eta lerro espezifikoekin bat etorriz.

Jarduketa-plana:

Lerro estrategiko hau gauzatzeko jarduketa-plana egiteko, diru-laguntza lerro bakoitzerako deialdien oinarriak egingo dira, eta aurrekontuan izenarekin ageri diren erakundeekin hitzarmenak eginez izapidetuko da.

Lehia libre eta, zehazki, lerro espezifiko bakoitzean jasotakoa.

II. ERANSKINA
AURREKONTU-PARTIDAK, 2018ko EKITALDIRAKO AURREIKUSITAKO DIRU-
LAGUNTZETAKO BAKOITZAREKIN

GIZARTE ZERBITZUAK

ZKIAº	KOLABORAZIOAREN DESKRIBAPENA	HARTZAILEA	MODALITATEA	AURREKONTUA	PARTIDA
1	Gizarte-larrialdiko laguntza	BESTELAKOAK	DIRU LAGUNTZA	300.000,00	6,2311,48001
2	Beharrian-egoera maximoa	BESTELAKOAK	DIRU LAGUNTZA	8.500,00	6,2311,48002
3	Hitzarmena Comparte elkartearikn	Foro125 Elkartea	HITZARMENA	3.000,00	6/2311/48100
GUZTIRA				311.500,00	

LANA

ZKIAº	KOLABORAZIOAREN DESKRIBAPENA	HARTZAILEA	MODALITATEA	AURREKONTUA	PARTIDA
1	Herri komertzioaren promozioa	Asociación de comerciantes y comerciantes de Ortuella	HITZARMENA	12.000,00	12,433,48902
2	Langabezian dauden pertsonak kontratatzeagatik emandako diru laguntzak	BESTELAKOAK	DIRU LAGUNTZA	40.000,00	4,241,47100
3	Herri komertzioaren promozioa	Herri Komertzioa. Bestelakoak	DIRU LAGUNTZA	6.000,00	12,4314,48903
GUZTIRA				58.000,00	

KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROLA

ZKIAº	KOLABORAZIOAREN DESKRIBAPENA	HARTZAILEA	MODALITATEA	AURREKONTUA	PARTIDA
1	Kirol aktibitatea, lokalaren gastuak edo kirol ekitaldiak.	BESTELAKOAK	DIRU LAGUNTZA	20.000,00	7,341,48007
2	LURGAZTE Jarduera	LUR GAZTE	HITZARMENA	2.400,00	8,3341,48015
3	Programak/ Kultural eta hezkuntzako jarduerak	BESTELAKOAK	DIRU LAGUNTZA	7.000,00	8,3341,48005



4	Hezkuntza	AMPA OTXARTAGA	HITZARMENA	29.000,00	8,3342,48005
5	Hezkuntza	AMPA ESCUELA PUBLICA	HITZARMENA	6.000,00	8,3342,48012
6	Hezkuntza	IES	HITZARMENA	9.000,00	8,324,48901
7	Musica Eskola	BESTELAKOAK	DIRU LAGUNTZA	2.000,00	8,3341/48001
GUZTIRA				75.400,00	

EUSKERA

ZKIA°	KOLABORAZIOAREN DESKRIBAPENA	HARTZAILEA	MODALITATEA	AURREKONTUA	PARTIDA
1	Eskeletan Eukararen promozioa	BESTELAKOAK	DIRU LAGUNTZA	6.000,00	8,465,48004
2	Eskeletan eta centro ofizialetan, euskara kurtsoak	BESTELAKOAK	DIRU LAGUNTZA	15.000,00	8,465,48004
GUZTIRA				21.000,00	

BERDINTASUNA

ZKI	KOLABORAZIOAREN DESKRIBAPENA	HARTZAILEA	MODALITATEA	AURREKONTUA	PARTIDA
1	Ortuellako Jubilatuen Elkartearen aktibitate ludikoak	Asociación jubilados Ortuella	HITZARMENA A	2.000,00	6,312,48006
2	Jarduera kulturalak eta emakume elkateak burututako jarduera formatiboak	BESTELAKOAK	DIRU LAGUNTZA	4.000,00	5,311,48009
GUZTIRA				6.000,00	

ESKU-HARTZE KOMUNITARIOA

ZKI	KOLABORAZIOAREN DESKRIBAPENA	HARTZAILEA	MODALITATEA	AURREKONTUA	PARTIDA
1	Giza eskubideen aldeko laguntzak	BESTELAKOAK	DIRU LAGUNTZA	2.000,00	1,2315,48001
2	HITZARMENA Arregualde cooperación al desarrollo	Arregualde	HITZARMENA	20.000,00	1,2315,48006



Ortuella

Udala

3	HITZARMENA Sáhara. Cooperación al desarrollo	Asociación Sáhara Ortuella	HITZARMENA	20.000,00	1,2315,48006
4	HITZARMENA ONARTU	ONARTU	HITZARMENA	500,00	1,2315,48007
GUZTIRA				42.500,00	

ETXEBIZITZA

ZKI	KOLABORAZIOAREN DESKRIBAPENA	HARTZAILEA	MODALITATEA	AURREKONTUA	PARTIDA
1	Gazte etxebizitza alokairua	BESTELAKOAK	DIRU LAGUNTZA	15.000,00	10,1500,48010
2	Etxebizitzen edifizioen konponketa	BESTELAKOAK	DIRU LAGUNTZA	20.000,00	10,1522,48101
GUZTIRA				35.000,00	

GUZTIRA

549.400,00

EBALUAZIO INDIKATZAILEAK

1.-ESKU HARTZE KOMUNITARIOA

- 2018ko EKITALDIAN, JARDUERAK BURUTU DITUZTEN EMAKUMEEN ELKARTEAK.
- DIRU-LAGUNTZA ESKATU DUTEN EMAKUMEEN ELKARTEN ZENBAKIA ETA AUTO-KUDEATU DIREN EMAKUMEEN ELKARTEEN ZENBAKIA.
- EMAKUMEEN ELKARTE BERRIEN SORKETA.
- POBLAZIO GUZTIRAKO JARDUERAREN BAT BURUTZEA ETA DIRU LAGUNTZAREN HELBURU ESTRATEGIKOAREKIN ZER IKUSIRIK DUENA.
- BESTE ELKARTEEKIN EDOTA UDALAREKIN, GENERO BERDINTASUNAREKIN ZER IKUSIRIK DUEN JARDUERAREN BATEAN LAGUNTZEA EKITALDI HONETAN.
- EMAKUMEEN ELKARTEAK BURUTUTAKO JARDUERA EZBERDINETAN, PARTE HARTZAILEEN ZENBAKIA %10EAN GEHITZEA.

2.- EUSKARAREN NORMALIZAZIO ADIERAZLEAK

- EUSKARA IKASI DUTEN / IKASTEN ARI DIREN PERTSONEN KOPURUA
- EUSKARA IKASTEN ARI DIRENEN ARTEAN: GURASOEN PORTZENTAJEA
- EUSKARA IKASTEN ARI DIRENEN ARTEAN: AISIALDI, KIROL ETA KULTUR ELKARTEETAKO BEGIRALEEN, ENTRENATZAILEEN ETA PORTZENTAJEA
- KRISEILU EUSKALTEGIAN MATRIKULATU DIREN IKASLEEN KOPURUA
- BERBALAGUN PROIEKTUAN PARTE HARTZEN DUTEN HERRITARREN KOPURUA
- DIRU-LAGUNTZAREN HELBURU ESTRATEGIKOA LORTZE ALDERA EUSKARA ZERBITZUTIK ETA UDALEKO GAINONTZEKO SAILETATIK ANTOLATUTAKO EKINTZETAN UMEEI ETA FAMILIEI ZUZENDUTAKOETAN EUSKARAZ EGINDAKOEN PORTZENTAJEA
- IKASTETXEETAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ANTOLATZEN DIREN EKINTZEN KOPURUA
- IRISMENA: EKINTZA HORIETAN PARTE HARTZEN DUTEN IKASLEEN KOPURUA
- EKINTZA HORIEK HERRIARI EGITEN DIOTEN EKARPEN KULTURALA (herrian zehar eta kaleetan egiten direnean: parte-hartzaileen kopurua)
- AHOZKOTASUNA LANTZEA ARDATZA DUTEN EKINTZAK: Herri euskaldunetan egonaldiak, berbantzerki, bertso tailerrak...: parte-hartzaile kopurua eta eskainitako orduak
- IKASTETXEAK EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZETAN IKASLEKO GASTATZEN GASTATZEN DUENA.

3.-KIROLA

- AURREKO URTEAN, DIRU LAGUNTZA ESKATU ZUTEN ELKARTEAK MANTENZEA.
- SORTU BERRI DIREN ELKARTEEN ZENBAKIA, NAIZ ETA DIRU LAGUNTZA ESKATU BADUTE EDO EZ.
- KIROL LAN TALDE, GUTXIENEZ, URTEAN BIRRITAN BATZEA, ELKARTE GEHIENGOAREKIN
- ELKARTEEN GEHIENGOAREKIN, BATERAKO EKINTZA BURUTZEA
- ERABILTZEN DITUZTEN UDAL LOKALEN BEHARRAK EDO KONPONKETAK, TRAMITATU ETA EBAZKETA.
- URTERO KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEN DUTEN PERTSONA KOPURUA.
- KIROL FITXEN ZENBAKIAREN GEHIKUNTZA

4.- KULTURA ETA HEZKUNTZA

- ELKARTEAK EGITEN DITUZTEN JARDUERA KOPURUA, HERRITAR GUZTIENTZAT, UDALAREN KOLABORAZIOAREKIN EDO KOLABORAZIORIK GABE.
- UDAL BATZAR EDO UDAL JARDUERATAN PARTE HARTZEN DUTEN ELKARTE KOPURUA.
- ERABILTZEN DITUZTEN UDAL LOKALEN BEHARRAK EDO KONPONKETAK, TRAMITATU ETA EBAZKETA.
- MUSIKA KURTZOETAN IKASTEN DITUZTEN IKASLEAK.
- MUSIKA BEKAK ESKATZEN DITUZTEN IKASLEAK.
- GURASO ELKARTEEK ANTOLATZEN DITUZTEN ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK MANTENTZEA
- ANTOLATZEN DIREN BATZAR ETA LANTALDEETAN, PARTE HARTZEN DUTEN ELKARTE ETA GAZTE KOPURUA.
- HITZARMENA SINATZEN DIREN ELKARTEEKIN, DITUZTEN URTEROKO JARDUERA PROGRAMAK MANTENTZEA.
- HAURRESKOLAN DAUDEN FAMILIA KOPURUA.

5.-LANA

6.-EKINTZA SOZIALA

7.-ESKU-HARTZE KOMUNITARIOA